



GOIZUETAKO UDALA

GOIZUETAKO (NAFARROA) 4. POLIGONOKO 148 LURSAILEKO "MEDIKUAREN ANTZINAKO ETXEA" DEN ONDASUN HIGIEZINA ENKANTE PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA.

1.- XEDEA

Kontratu honen xedea da udalaren jabetzako ondasun hau enkante publiko bidez besterentzeko baldintzak ezartzea:

KATASTROKO DESKRIBAPENA:

HIRIKOA: Fermin Antonio Apezetxea kalea , 2. (4. POLIGONOA - 148. PARTZELA, 1,2,3 eta 4. Hiri unitateak. Azalera: 240,14 m2)

INSKRIPZIOA:

Iruñeko 5 zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, Goizuetako Udalaren izenean (3368 liburukia, 46 liburua, 59 folioa, 2125 finka), 240 metro karratuko azalerarekin.

Mugak: iparraldean, Fermin Antonio Apezetxea kalea; hegoaldean, 149 partzela; ekialdean, 149 partzela; eta mendebaldean, Fermin Antonio Apezetxea kalea. 4. poligonoa, 148. partzela, 1. azpierzemua, 1,2,3 eta 4 hiri-unitateak.

HIRIGINTZA EGOERA:

Indarrean dagoen Plangintza Orokorra: Goizuetako Udal Plan Orokorra

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena: Hirigunea AO.1 sektorearen zati den hiri-lurzoru finkatua

Erabilera xehatuak: bizitegi-erabilera

Higiezin horren balorazio-txosten tekniko dago, 2022ko abenduaren 23koa, 89.064,41 euroko balioa zehazten duena (zergak kanpo) eta higiezinak 272,09 m²-ko azalera eraikia duela, eta 2 etxebizitza egin ditzakeela, dauden bolumen-baldintzetan.

2.- ESLEITZEKO PROZEDURA.

Ondasun higiezin honen besterentzea izapidetze arrunta bidez egingo da, prozedura irekiaren eta plegu itxiko enkante publikoaren bidez, eta kontratua preziorik onena eskaini duen errematatzaileari esleituko zaio.

Ondasun horren behin-behineko esleipenetik ateratzen den behin behineko eskaintza onena hobetu ahal izanen da seiren bat gehituz gero, gutxienez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 229. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.- LIZITAZIO-OINARRIA

Lizitazio-oinarria honako hau izango da: LAUROGEITA BEDERATZI MILA ETA HIRUROGEITA LAU EURO



GOIZUETAKO UDALA

ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (89.064,41 euro), legez bidezkoak diren zergak kanpo. Prezioa gorantz hobetu ahal izango da. Ez da onartuko lizitazio-oinarri horren azpiko eskaintzarik.

4.- ORDAINTZEKO MODUA

Esleipen-prezinoa esleipendunak La Caixan dagoen Goizuetako Udalaren kontu korrontean sartuko du, behin betiko esleipena jakinarazten zaion egunetik hamabost egun naturaleko epean.

Esleipen-prezioaren ordainketa osoa garaiz eta behar bezala egiaztatu ondoren, eskritura publikoak notarioaren aurrean egietsiko dira.

5.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO FIDANTZAK.

Behin-behineko fidantza: Enkantean parte hartu ahal izateko, interesdunak edo bere izenean diharduen beste pertsona batek behin-behineko fidantza jarri beharko du Goizuetako Udalaren esku, lizitazioaren gutxieneko prezioaren % 2aren baliokidea, hau da, 1.781,29 eurokoa (mila zazpiehun eta laurogeita bat euro eta hogeita bederatzizentimo), parte hartzeko eskaerei edo eskaintzei seriotasuna emateko, eta kontratua ezarritako epean formalizatzeko betebeharrari lotuta egongo da.

Behin betiko fidantza: esleipendun suertatzen denak behin betiko fidantza bat jarri beharko du, egindako eskaintzaren zenbatekoaren % 4koa.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Lege Organikoaren 70.3 artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da.

Behin betiko bermeak esleipendunaren betebeharrak eta erantzukizunak betetzeari eragingo dio, bai eta horrek eragin ditzakeen kalte-galerak konpontzeari ere.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, kontratua suntsiarazi egingo da.

Fidantzak interesdunak eskatu ondoren itzuliko dira, eta honela egingo da:

- Esleipendunarentzat, dagokion salerosketa-eskritura formalizatu eta erregistratu ondoren. Eskritura hori udaletxean aurkeztu beharko du, bere gain hartzen dituen betebeharrak betetzen dituela egiaztatu ondoren.
- Esleipendun ez diren pertsonentzat, behin betiko esleipen-egintzaren ondoren.

6.- ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO GASTUAK.

Besterentze honen ondoriozko gastu eta zerga guztiak, Estatuarenak, Foru Komunitatearenak edo Udalarenak izan, hala nola eskriturari, Jabetza Erregistroan inskribatzeari, ondare-eskualdaketei, BEZari eta abarri buruzkoak, esleipendunaren kontura izango dira.

7.- KONTRATAZIO-MAHAIA.

Kontratazio-mahaia prozedura honetan berezkoak dituen eginkizunak beteko ditu, eta enkantea egin aurretik eratu beharko da. Honako hauek osatuko dute mahaia:



GOIZUETAKO UDALA

Lehendakaria: Udaleko alkatea, Unai Miranda Berroeta,
Batzordekidea: Ana Uitzu Manterola, Udaleko zinegotzia
Batzordekidea: Udal arkitektoa, Idoia Legarreta Narbarte
Idazkaria: Udaleko idazkaria, Miriam Arozena San Miguel

Kontratazio-mahaiak beharrezkotzat jotzen duen aholkularitza jaso ahal izango du bere txostena egin aurretik. Haren esku-hartzea Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta indarrean dagoen Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean xedatutakoa izango da.

8.- KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK.

Lurzaiaren salmenta "bere horretan" egiten da, eta, beraz, ezingo da inolako erreklamaziorik egin azalera-diferentziengatik edo higiezinan obrak edo instalazioak egitearen ondorioz edo hirigintzaren, etxebizitzaren edo beste gai batzuen arloan indarrean dagoen araudia aplikatzearen ondorioz sor daitekeen beste edozein inguruabar edo datuengatik. Beraz, desberdintasun horiek gertatuz gero, ezingo dira kontratua aurkaratzeko edo suntsiarazteko arrazoi izan, eta ezingo da erreklamazio ekonomikorik egin.

Lurzatia aurreikusitako erabilerarako erabili beharko da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak eta aplikatu beharreko gainerako hirigintza-legeriak eta arau osagarriek zehaztutako sailkapenaren eta kalifikazioaren arabera. Bertan, beheko solairua gehi bi altuerako bi etxebizitza libre egin ahalko dira gehienez. Gainera, egokitzapen-obrak eskriturak sinatzen direnetik gehienez ere bi urteko epean hasi beharko dira.

Esleitutako ondasuna ezin izango zaio beste pertsona fisiko edo juridiko bati eskualdatu eskritura formalizatu eta bi urteko epean, Goizuetako Udalaren berariazko baimena izan ezik. Udalak eskualdaketa hori baimendu dezan, bere burua erosle gisa proposatzen duen pertsonari deialdi gaitasun-baldintzak betetzen dituela eta kontratatzekeo baztertzeko arrazoirik ez dagoela egiaztatzekeo eskatuko du. Kasu horretan, eskuratzaila esleipendun eskualdatzailearen harreman, eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da.

Agiri honetan ezarritako betebeharrak eskritura publikoan jaso eta Jabetza Erregistroan inskribatuko dira. Betebeharrak horiek betetzen ez badira, kontratua deuseztatu eta esleitutako ondasuna Goizuetako Udalari itzuliko zaio. Itzulketan ondasuna adjudikatu zen hasierako balioaren baliokidea izango da, eta % 4 murriztuko da kalte-galerengatik zigor gisa. Era berean, haren gainean eraturako kargen zenbatekoa kenduko da. Itzulketak berekin ekarriko du eraikitako obra, halakorik balego, eta Udalak partzela hasierako egoerara itzultzekeo edo eraisteko agindu ahal izango du, lurzatiaren esleipendunaren kontura.



GOIZUETAKO UDALA

9.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Enkantean parte hartu ahal izanen dute beren gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, eta ez badaude sartuta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluan ezarritako bazterketa-kasuetako batean ere.

Administrazioak batera parte hartzen duten pertsonekin kontratatu ahal izanen du, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 13. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Halaber, Enpresen Aldi Baterako Batasunean parte hartzeko asmoa duten pertsonekin ere kontratatu ahal izango du. Ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan sustatzea esleipena egin arte.

Bi kasuetan, elkartutako lizitatzailleek erantzukizun solidarioa izango dute Administrazioaren aurrean, eta ezingo dute proposamen individualik aurkeztu. Bi kasuetan ere, eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, eta batasuneko kide guztiei kontratatzeke debekuek eta bateraezintasunek ez diete eragingo.

Baterako partaidetza hori agiri pribatu baten bidez gauzatuko da, eta agiri horretan adierazi beharko da elkarrekin lehiatzeko borondatea dagoela, bakoitzaren partehatzea zien izango den eta ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatuko da. Ordezkari edo ahalduen horrek behar besteko boterea izango du kontratutik eratortzen diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte. Nolanahi ere, enpresek ahalmen mankomunatuak eman ahal izango dituzte kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Pertsona bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, eta, era berean, ezin izango du baterako partaidetzako proposamenik izenpetu proposamen individual bat aurkeztu badu. Arau hau hautsiz gero, ez dira onartuko berak sinatutako proposamen guztiak.

10.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

Aurkezteko epea:

Proposamenak aurkezteko epea 2023ko otsailaren 6tik 28ra bitartekoa (biak barne) izanen da; otsailaren 28an eguadiko 12.30ak arte.

Aurkezteko lekua:

Eskaintzak Goizueta (Nafarroa) Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Herriko Plaza 4-1.a, 31754 Goizueta, Nafarroa), 9: 00etatik 12.30tara eta astelehenetik ostiralera; edo Administrazio



GOIZUETAKO UDALA

Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bitartekotan, proposamenen sekretua bermatzen ez duten aurreikusitako moduak izan ezik.

16.4 artikulua honetako erregistro ofizialetako batean aurkeztuz gero, horren berri eman beharko diote Udalari, proposamenak aurkezteko gehienezko epearen barruan, Goizuetako Udalera zuzendutako posta elektronikoz bidez (udala@goizueta.eus). Jakinarazpen hori falta bada, proposamena ez da onartuko.

Lizitatuzaileek postaz ere bidali ahal izango dituzte proposamenak iragarkian adierazitako onarpen-epearen barruan. Kasu horretan, posta-bulegoan bidalketa noiz aurkeztu den egiaztatu beharko dute dagokion frogagiriarekin, eta egun berean posta elektronikoz jakinarazi beharko diote proposamena bidali zaiola kontratazio-organoari (udala@goizueta.eus). Baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onartuko lizitazio-iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen bada.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta aurkezteak esan nahi du lizitatuzaileak baldintzarik gabe onartzen duela agiri arautzaile honetan aurreikusitako eduki osoa.

ESKAITZEN EDUKIA ETA FORMA. Aurkeztu beharreko agiriak

Dokumentazioa **gutun-azal itxi bakar batean aurkeztuko da**, honako legenda honekin: *Goizuetako 4. poligonoko (Nafarroa) 148. partzelan dagoen ondasun higiezinaren –medikuaren aintzinako etxea- enkante publikoko prozeduran parte hartzeko proposamena*. **Honako hauek jasoko dira bertan:**

A) -Instantzia, 1. Eranskinaren ereduak betea

B) Bi gutun-azal itxi hauek ondorengo izenarekin:

1. gutun-azala: Administrazio-dokumentazioa – Goizuetako 4 poligonoko (Nafarroa) 148. partzelan dagoen ondasun higiezinaren –medikuaren antzinako etxea- enkante publikoko prozeduran parte hartzeko administrazio-agiriak

2. gutun-azala: Dokumentazio ekonomikoa – Goizuetako 4 poligonoko (Nafarroa) 148. lursailean dagoen ondasun higiezinaren –medikuaren antzinako etxea- enkante publikoko prozeduran parte hartzeko dokumentazio ekonomikoa

***Administrazio-dokumentazioko 1. gutun-azalean honako hauek sartuko dira:**

- a) Lizitatuzaileak egindako erantzukizunpeko adierazpena, kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten duena, kaudimen ekonomikoa barne, 2. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, eta espresuki onartzen duela kontratuaren deuseztasuna, aurkeztutako adierazpena faltsua dela frogatzen den egunetik aurrera.



GOIZUETAKO UDALA

- b) Baterako partaidetza-araubideko edo aldi baterako enpresa-elkarteko lizitatzailleak. Agiri pribatua aurkeztu beharko da. Agiri horretan, batera lehiatzeko borondatea adieraziko da, lizitatzaille bakoitzaren partaidetza-ehunekoa adieraziko da, eta ordezkaritza edo ahalorde bakarra izendatuko da, kontratutik eratorritako eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmenarekin, kontratua iraungi arte, kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalmen mankomunatuak egotearen kalterik gabe.
- c) Eskatutako behin-behineko fidantza eratu dela egiaztatzen duen agiri originala.

Eskaintza ekonomikoari buruzko edozein aipamen 1. gutun-azalean sartzeak proposamena ez onartzea edo baztertzea ekarriko du.

***Proposamen ekonomikoaren 2. gutun-azalean honako hauek sartuko dira:**

Proposamen ekonomiko bakarra, behar bezala sinatuta eta baldintza hauetan 3. eranskin gisa agertzen den eredu ofizialaren arabera. Gutun-azal horretan proposamen ekonomiko bat baino gehiago sartuz gero, lizitaziotik kanpo geratuko da automatikoki.

Aurreko gutzia betetzeko aurkezten diren dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira. Kopia edo fotokopia aurkezten badira, notarioak edo Udal Administrazioak egiaztatu beharko ditu.

Fidantzaren egiaztageria jatorrizkoa aurkeztu beharko da nahitaez.

11.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA

Kontratazio-mahaiak, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera, barne-egintza egingo du administrazio-agirien 1. gutun-azala ireki eta baloratzeko, eta kalifikatu egingo du, eta lizitatzaille bakoitza onartzeari edo baztertzeari buruz ebatziko du.

Kontratazio Mahaiak zailtasunak ikusten baditu aurkeztutako dokumentazioa interpretatzeko edo dokumentazioan akatsak daudela ikusita, 5 eguneko epea eman ahal izango du, egoki baderitzo, lizitatzailleak zuzen ditzan, eta aurkeztutako dokumentazioa barne-egintzan kalifikatuko du berriro. Administrazio-agirietako akatsak edo hutsuneak funtsezkoak edo konponezinak badira, mahaiak lizitatzaillea ez onartzea erabakiko du.

Dokumentazio administratiboan egindako akatsak zuzendu ondoren, halakorik balego, Kontratazio Mahaiak, egintza publikoan, 2 zk.ko gutun-azala (Proposamen Ekonomikoa) irekiko du, aldeztatik Nafarroako Kontratazio Atarian eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratu den egunean.



GOIZUETAKO UDALA

Proposamen ekonomikoa ireki aurretik, mahaiburuak dokumentazio pertsonalaren kalifikazioaren emaitza jakinaraziko du, onartutako eta bazterutako lizitatzailleak eta baztertzeko arrazoiak adieraz.

Kontratazio-mahaiak behin-behineko esleipen-proposamena egingo dio preziorik altuena eskaintzen duen lizitatzaileri, eta ez da onartuko lizitazio-prezioaren azpiko proposamenik.

Plegu itxian onartutako proposamenen artean berdintasun ekonomikoa sortzen bada, eskaintza banaka edo beste pertsona fisiko batekin batera aurkezten duten pertsona fisikoek egindako eskaintza izango da nagusi pertsona juridikoek egindako eskaintzen aldean.

Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Enkantea hutsik geratuko da eskaintzarik aurkezten ez bada, aurkeztutakoak lizitazio-prezioa baino txikiagoak badira edo agiri honetan jasotako baldintzak betetzen ez badituzte.

Enkantea egiteko ekitaldiaren emaitza berehala iragarriko da Goizuetako Udaletxeko iragarki-oholean.

Kontratazio Mahaiak egindako esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko behin-behineko esleipendunaren alde Administrazioaren aurrean.

12.- SEXTEOA

Enkanteko esleipena behin betikoa da, eta Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 229. artikulua araberako, gutxienez, seirena handituta hobetu ahal izanen da. Prozedura honek artikulua horretan jasotako arauak bete beharko ditu. Hauek dira:

- a) Enkanterako iragarritako orduaren ondorengo sei egunen barruan egin beharko da, eta hurrengo seigarren eguneko ordu berean amaituko da, jaiegunak barne.
- b) Legez gaitutako edozein pertsonak aurkeztu ahal izango du, enkantean lizitatzaille izan ez arren, betiere alde aurretik behin-behineko bermea eratu badu.
- c) Idatziz edo ahoz egin daiteke, idazkariaren aurrean agertuz. Idazkariak, nolahi ere, eginbidea sinatuko du, eta aurkezpenaren eguna eta ordua adieraziko ditu.
- d) Sexteoa formalizatu ondoren, beste enkante bat egingo da, horretarako ezarritako epea amaitu eta hurrengo lau egun baliodunen barruan. Toki-erakundeak esleipen-proposamena jaso duen lizitatzaileri jakinarazi beharko dio bere jarrera seirenean hobetu dela, behin betiko enkantearen data berariaz adierazita.
- e) Behin betiko enkanterako, tasazio-oinarria izango da egindako hobekuntzatik ateratzen dena. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da iragarki-taulan, eta, gutxienez, bi egun baliodun lehenago adieraziko da zein egun eta ordutan egingo den enkante berria, jatorrizkoa bezala. Lizitatzailerik aurkezten ez bada, esleipena sexteatzaileri proposatuko zaio.



GOIZUETAKO UDALA

f) Egindako enkante berriaren akta egingo da eta emaitza Goizuetako udaletxeko iragarki-oholean iragarriko da.

g) Esleipen-proposamena egin eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan, edozein pertsonak, lizitatuzailea izan ez arren, idatziz alegatu ahal izango ditu lizitazioaren izapidetze-akatsak, eta, bereziki, lizitatuzaileen gaitasun juridikoari dagozkionak, eta esleipenari buruz bere iritziz egokia den ebazpena hartzeko eskatu ahal izango du.

Kontratua esleitzeko modua baliozkotzat jo ondoren, dagokion organoak enkantearen behin betiko esleipenari buruzko ebazpena emango du.

13.- BEHIN BETIKO ESLEIPENA

Kontratua esleitzeko modua baliozkotzat jo ondoren, kontratazio-organok, Kontratazio Mahaitik dokumentazioa jaso eta, hala badagokio, dagozkion txostenak egin ondoren, kontratua proposamen ekonomiko onuragarriari esleitzeko ebazpena emango du.

Esleipen hori **gehienez ere hilabeteko eta erdiko epean** egin beharko da, proposamen ekonomikoa jendaurrean irekitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Aldez aurretik, sexteorako epea amaitu ondoren eta behin betiko esleipena egin aurretik, administrazioak **10 egun naturaleko epea** emango dio esleipendunari ondoren adierazten den administrazio-dokumentazioa aurkez dezan:

- a) Nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa
 - ✓ Pertsona naturala bada: Nortasun Agiri Nazionala
 - ✓ Pertsona juridikoa bada: Sozietatea eratzeko edo aldatzeko eskritura, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldintza hori bete behar denean; hala ez bada, eratzeko eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta dagoena. Nolanahi ere, Identifikazio Fiskaleko Kodea jasoko da.
 - ✓ Beste pertsona baten edo erakunderen baten ordezkaritzan badago, nortasun-agiri nazionala eta ahalordearen notario-agiria, ordezkaritza duen pertsonaren alde nahiko inskribatuta dagoena, salbu eta pertsona juridikoen kasuan hura eratzeko edo aldatzeko eskrituran jasota badago.
- b) Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren justifikazioa, lizitatuzaileak errematea ordaintzeko duen gaitasun ekonomikoa egiaztatzen duen finantza-erakunderen baten txostenaren bidez egiaztatu beharko dena.



GOIZUETAKO UDALA

- c) Goizuetako Udalari era guztietako zorrak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
(Dokumentu hau udal administrazioak ofizioz eman ahal izango du)
- d) Eskatutako behin betiko fidantza eratu dela egiaztatzen duen jatorrizko agiria.
- e) Proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei hilabete lehenago egindako administrazio-ziurtagiria, lizitatzailleak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duena.
- f) zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria:
 - ✓ Proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei hilabete lehenago luzatutako administrazio-ziurtagiria, lizitatzailleak Estatuko eta Nafarroako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Lehen aipatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratua suntsiarazi egingo da, esleipendunari entzun ondoren, eta lizitaziorako eratutako bermeak konfiskatuko dira.

14.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Behin betiko esleipena erabaki ondoren, eta esleipena eteteko epea igaro ondoren, enkantearen xede den lurzatiaren eskualdaketa benetakoa eta eraginkorra izango da salerosketako eskritura publiko bidez kontratua formalizatzean. Eskritura hori agiri honetan ezarritakoaren arabera egingo da, pleguak esleipendunarentzat ezartzen dituen betebeharrak guztiak berregingo dira eta behin betiko esleipena egin eta gehienez ere bi hilabeteko epean sinatuko da.

Esleipendunak ez badu ordainketa epearen barruan egiten edo salerosketa-eskritura formalizatzeraz agertzen ez bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, esleipena suntsiaraziko da fidantza galduta eta eragindako kalte-galeren ordaina jasota. Goizuetako Udalak hurrengo lizitatzailleari edo lizitatzailleei esleitu ahal izango die kontratua, eskaintzen kalifikazio-ordenaren arabera. Esleipendunaren kontura izango dira egindako negozio juridikotik eratorritako zerga guztiak, baita hark sortutako eskritura- eta inskripzio-gastuak ere (BEZa, ondare-eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak, notarioa, jabetza-erregistroa eta abar).

Formalizatzen den eskritura publikoari erantsitako dokumentu gisa, administrazio klausula agiri hau erantsiko da

15.- KONTRATUA ETETEA ETA ITZULTZEA

Agiri honetan ezarritako betebeharrak eskritura publikoan jasoko dira. Ez betetzeak, bereziki 8. klausulan adierazitako baldintzak, kontratua deuseztatzea eta lurzatia Goizuetako Udalari itzultzea ekarriko du, aipatutako klausulan ezartzen den moduan



GOIZUETAKO UDALA

16.- KONTRATUAREN IZAERA JURIDIKOA ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu hau, prestaketari eta esleipenari dagokienez, baldintza-agiri honek arautuko du, eta, plegu honetan ezartzen ez denerako, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduak eta Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak xedatutakoa beteko da.

Ondorei eta azkentzeari dagokienez, Nafarroako Foru Berrian xedatutakoak eraenduko du, eta, osagarri gisa, Kode Zibilak.

17.- JURISDIKZIOA

Kontratua prestatzeari eta esleitzeari buruz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren esku geratuko dira, eta kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruzkoak, berriz, jurisdikzio zibilaren esku.

18. – HELEGITEAK

Plegu honen aurka eta berau betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpen guztien aurka, nahi izanez gero, honako errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira:

- berraztertze errekurtsioa administrazio-egintza egin duen udal-organoaren aurrean, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.
- administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Epe hori zenbatzen hasiko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

EGINBIDEA: Baldintza plegu hau, 2023ko urtarrilaren 31n ospatutako udalbatzan onartua izan da.

ALKATEA

Sin: Unai Miranda Berroeta

IDAZKARIA

Sin: Miriam Arozena San Miguel



GOIZUETAKO UDALA

1.ERANSKINA. INSTANTZIA

jn./and:

NAN:

Telefonoa/ telefono mugikorra:

Posta elektronikoa jakinarazpenaratako:.....

BERE IZENEAN EDO ORDEZKARI MODUAN*:

*(ezabatu ez dagokiona)

jn./and:

NAN:

Telefonoa/ telefono mugikorra:

Posta elektronikoa jakinarazpenaratako:.....

ADIERAZTEN DU:

GOIZUETAKO (NAFARROA) 4. POLIGONOKO 148. LURSAILA, "ANTZINAKO MEDIKUAREN ETXEA", UDAL TITULARTASUNEN ONDASUN HIGIEZINA ENKANTE PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO prozeduraren berri izan ondoren eta hura arautzen duten baldintzak ezagututa, horiek eta aurkeztutako eskaintza ekonomikoa betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta horretarako gutun-azal bat erantsi du. Gutun-azal horretan, beste bi gutun-azal daude, honako eduki honekin:

- 1 GUTUN-AZALA: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA".
- 2 GUTUN-AZALA: "ESKAINZA EKONOMIKOA"

Horregatik guztiagatik, hau ESKATZEN DU:

Enkante horretan onartua izatea, adieraziz (sinatzailea edo bere ordezkaria) (ezabatu ez dagokiona) izango dela proposamena egin eta Udalarekin kontratua formalizatuko duena esleipendun suertatuz gero, eta aipatutako enkantean parte hartuko duela.

Goizuetan (Data)
SINADURA



GOIZUETAKO UDALA

2.ERANSKINA. ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Izena: _____; helbidea: _____; NAN:
_____ zenbakiduna, _____ bere izenean edo
_____ izenean (dagokiona), helbidea:
_____ IFZ: _____, telefono zenbakia:

Goizuetako (Nafarroa) 4. poligonoko 148. lursaila, "Aintzinako medikuaren etxea", udal titulartasuneko ondasun higiezinaren enkante publiko bidez besterentzeko arautzen duten baldintzak ezagututa

NIRE/BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

a) Ordezkatzen dudana erakundeak/ Nik (dagokiona) gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren baldintzak betetzen dituela. Sinatzaileak behar bezalako ordezkari duela eta, esleipen-proposamenaren alde lehiatzaile izanez gero, eskatzen diren agiri eta betebeharren jabetza eta baliozkotasuna egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, gehienez ere hamar eguneko epean, esleipen-proposamena jakinarazten denetik hasita.

b) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalari buruzko baldintzak betetzen dituela, hala badagokio

c) Ez duela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin kontratatzeko debekurik, eta enpresa eta haren administratzaileak, hala badagokio, ez daude lizitazio-prozeduratik kanpo, Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 22. eta 23. artikuluen arabera.

d) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

e) Berariaz onartzen du enkantea arautzen duen baldintza-agiria, eta Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko gainerako lege-baldintzak betetzen dituela, bai eta kontratazio pleguan ezarritakoak ere.

f) Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela uko egitea dakarten gorabehera guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruaren mende (atzerriko enpresen kasuan).

g) Beste erakunde batzuen idatzizko konpromisoa duela, baliabideak atxikitzeari edo, hala badagokio, baliabideak erabiltzeari dagokionez.

h) Prozeduraren edozein faserekin zerikusia duten jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa gisa honako hau duela: _____

i) Kontratazio hau arautzen duen pleguaren berri izanda, kontratazio hau eta aurkezten den eskaintza zehatz-mehatz betetzeko konpromisoa hartzen duela.

Espresuki onartzen da kontratuaren deuseztasuna, aurkeztutako adierazpena faltsua dela frogatzen den egunetik aurrera.



GOIZUETAKO UDALA

Eta horrela ager dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut,

Goizuetan (Data)
SINADURA



GOIZUETAKO UDALA

3.ERANSKINA.ESKAINZA EKONOMIKOA

Izena: _____; helbidea: _____; NAN:
 _____ zenbakiduna, bere izenean edo
 _____ izenean (dagokiona), helbidea:
 _____ IFZ: _____, telefono zenbakia:

GOIZUETAKO (NAFARROA) 4. POLIGONOKO 148. LURSAILA, "ANTZINAKO MEDIKUAREN ETXEA", UDAL TITULARTASUNEN ONDASUN HIGIEZINA ENKANTE PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO arautzen duten baldintzak ezagututa, horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela. Horretarako, honako eskaintza ekonomiko hau egiten dut enkanteko lehen daialdian, honako zenbateko honekin (zenbakiz eta letraz adierazi, desadostasuna badago, letraz adierazitakoa lehenetsiko da):

Ondoren zehazten den ekaintza egiten da:

"Aintzineko Medikuaeren Etxea". Goizueta (Nafarroa) 4 poligonoko 148 partzela.	_____ euro.(zenbakiz adierazi)

	_____euro. (letraz adierazi)

Oharra: Eskaintza honetan ez da sartzen kasu bakoitzean dagokion BEZa edo zerga, indarrean dagoen legediaren arabera aplikatuko dena

.....(e)n, 202.....ko aren (e)an

(Sinadura)